

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
NEREA YEREGUI BALDA

BERTARATU EZ DIRENAK

IGOR OTERMIN EGUIA
ANDER PRADOS OTAMENDI

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko otsailaren 26an arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ager den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2025-01-21KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2025-01-21eko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi. Idazkaria ohartu da akats baten ondorioz, 2025eko urtarrilaren 21eko udal bilkurako akta onartu zela transkribatu zela 2024-12-23ko udal bilkurako akta jarri beharrean

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Gas Natural Redes GLP

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urtarrilaren 23an, 3/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Gas Natural Redes GLP Sari hirigintza lizentzia ematea Beteluko 2. Poligonoko 30. Lursailean dagoen gas hornidurarako GLP plantaren itxitura perimetrala egiteko.

2. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urtarrilaren 27an, 4/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko urtarrilaren 21ean egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

3. Teodoro Otamendi Artola

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko otsailaren 5ean, 5/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Minusbaliatuendako aparkatzeko txartela ematea Teodoro Otamendi Artolari.

4. María Ángeles Razquin Zubillaga

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko otsailaren 4an, 6/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Minusbaliatuendako aparkatzeko txartela ematea María Ángeles Razquin Zubillagari.

5. Mikel Otamendi Ezcurdia

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko otsailaren 14an, 7/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 1. Poligonoko 5. Eta 6. Partzelen mugak eta azalera grafikoki aldatzeko prozedura hastea.

6. Elias Clemente Piris

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko otsailaren 14an, 8/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko inauteriak direla eta, Elias Clemente Pirisi lurzoru publikoa okupatzeko baimena ematea otsailaren 14tik otsailaren 18ra txurro denda jartzeko.

7. Erwin Mendez

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko otsailaren 17an, 9/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 2. Poligonoko 507. Lursailean lanabesen etxola, baso-mintegia, shiitake ekoizpen-eremua eta perímetro-itxiera instalatzeko, Udalak Erwin Mendez eskatzaileari instalazioen kokapen-planoa eskatu dio, uren legeak ezarritako arauzko distantziak kontuan hartuko dituen.

8. Beteluko Lagunartea Jai Batzordea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko otsailaren 20an, 10/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko ekainaren 28 arratsaldean goitibehera lasterketa egiteko baimena ematea Beteluko Lagunartea Jai Batzordeak proposatutako ibilbidean.

3. BASO-SUTEEK ERAGINDAKO LARRIALDIETAN UDALAK JARDUTEKO PLANAREN ONARPENA

Beteluko Udalaren enkarguz Ecolanek baso-suteek eragindako larrialdietan udalak jarduteko plana egin zuen.

Nafarroako Gobernuak Emergentzien eta komunikazio sistemen planifikazio eta koordinazio atalak aldeko txostena eman zion aipatutako planari 2024ko abuztuaren 12an.

Hau ikusirik, udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez

ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Ecolanek idatzitako Beteluko herrian baso-suteek eragindako larrialdietan udalak jarduteko plana onartzea.

BIGARRENA: Akordioa hau eta onartutako plana Nafarroako Babes Zibilera bidaltzea.

4. ARAXES ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOA SUTEETARAKO EBAKUAZIO ARAUDIRA EGOKITZEARI BURUZKO MEMORIA BALORATUA ONARTZEA

Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emandako abenduaren 19ko 313E/2024 ebazpen bidez Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuei dirulaguntzak emateko deialdia onetsi da, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza-DBHko ikastetxe publikoak hobetzeko eta birmoldatzeko obra proiektuak egin ditzaten. Deialdi horren oinarrien 6.b.3) oinarriari so eginez, udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez

ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Jose Miguel Rodriguez Ezpeletak idatzitako Araxes eskualdeko ikastetxe publikoa suteetarako ebakuzio araudira egokitzeari buruzko memoria baloratua onartzea eta beraz bere baitan aurreikusten diren obrak onartzea.

BIGARRENA: Proiektuan agertu bezala, inbertsioaren zenbateko osoa (obrak eta honorario teknikoak kontuan harturik) 95.349,82 eurokoa da (BEZ barne).

HIRUGARRENA: Obren gauzatzea aipatutako dirulaguntzen onuradun izatera baldintzaturik egonen da.

LAUGARRENA: Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emandako abenduaren 19ko 313E/2024 ebazpen bidez Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuei dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak onartzea.

BOSGARRENA: "Araxes eskualdeko ikastetxe publikoa suteetarako ebakuzio araudira egokitzea" izeneko obrari dagokionez, aurrekontuetan behar adinako zuzkidura ekonomikoa izanen denaren konpromisoa hartzea, beti ere aipatutako dirulaguntzaren adjudikaziodun izanez gero.

5. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Harinas de madera	F. Iñauteritako zerrautsa	157,72 €
Ofico	F.250389	130,73 €
Geserlocal	F. A0029/53	1.209,64 €
IDM Medical	F.182	131,07 €
Wikai	F. 1/37	112,10 €
Venus Campos Walsh	F. DFA 38	2.833,41 €
Iberdrola	F. Urberoa	7,94 €
Plazaola Partzuergoa	F. 2025/17	156,14 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	618,24 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	1.108,42 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. uraren urtarrileko kontrola	90 €
Euskara Mankomunitatea	F. eskualdeko aurrekontuaren %50	3.210 €
Euskara Mankomunitatea	F. Aurrekontu orokorraren %50	3.959 €
Comercial Fervis	F. 377	28,31 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. 1050 urtarrila	117,50 €
Iberdrola	F. udaleko pisua urtarrila	11,48 €
Chocarro y Urmeneta	F. 2024ko 2.seihilekoaren aholkularitza	1.415,70 €
Ascensores Arga	F. 10932 otsailetik apirilarteko mantenua	203,28 €
Goienar	F. Udaleko urtarrileko argia	1.685,25 €
Goienar	F. Eskolako urtarrileko argia	1.586,39 €
Navadat	F. Datu babesen aholkularitza	1.015,27 €
Dimarpe SL	F. Material erosketa	257,68 €
Iruña Mantenimientos	F. Eskolako galdara	7.140,21 €
Uzubi	F. A101	178,38 €
Ofico	F.250795 urtarrila	130,73 €
Kirol mankomunitatea	F. 2025eko kuota	6.102,00 €
Codisna	F. 25.067 hipoclorito	199,65 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 24 zakarrontzi berrien ondoko farola	1.064,00 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Kide aholkularitza	F.S24	389,62 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Sorgintxoko urtarrileko janaria	74,90 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F Sorgintxoko urtarrileko garbiketa produk.	22,95 €
Comercial Fervis	F. 343	-74,09 €
Maite Garcia Satrustegui	F. A1/229 urtarrileko menuak	663 €
	DENETARA:	35.936,62€ €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak hogeit gutxi direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.